

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea (2020. urtea)

Nik, Joseba Koldo Garitagoitia Odria jaunak, Dulantziko (Araba) alkate-lehendakariak, hau jakinarazten dut:

2020ko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitarteko (biak barne) egun baliodunetan ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, hauei dagozkien ordainagiriak: 2020. urteko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko martxoaren 1etik apirilaren 30era.

B) Maiatzaren 1etik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera eta dagokion errekargua izango du (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapidetik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez daukatenez borondatezko epearen barruan ordaindu ahal izango dute banketxe laguntzaileetan.

III. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Dulantziko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Dulantzi, 2020ko otsailaren 27a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA